

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### MARIETA-LARRINTZARKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Garaio izeneko VI-10.061 ehiza esparruko ehiza aprobetxamenduaren lehiaketa publikoa**

Marieta-Larrintzarko Administrazio Batzarrak, ehiza esparruaren titularrak, ohiko bilkuran, Garaio izeneko VI-10.061 ehiza esparruaren aprobetxamendua enkante bidez kontratatzeko espedientea onetsi zuen.

#### Enkantea

1. Erakunde esleitzaila: Marieta-Larrintzarko Administrazio Batzarra.
2. Kontratuaren xedea: "Garaio" izeneko VI-10.061 ehiza esparruko ehiza aprobetxamendua.
3. Izapidetzea eta prozedura. Izapidetzea: presakoa; prozedura: irekia; esleitzeko era: enkantea.
4. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua: Hamaika mila eta bederatziehun euro eta hirurogeita hamar zentimo (11.900,70 euros) gehi BEZa.
5. Behin-behineko bermea: hiru mila eta bostehun euro (3.500,00 euro).
6. Behin betiko bermea: esleipenaren ehuneko 5, BEZa aparte.
7. Dokumentazioa eta argibideak eskuratzeko: Marieta-Larrintzarko Administrazio Batzarrean, 669432839 telefono zenbakira deituz, 18:00etatik 20:00etara, iragarkia ALHAOn argitaratu eta zortzi egun naturaleko epean.
8. Eskaintzak aurkeztea: Marieta-Larrintzarko Administrazio Batzarraren lokalean, 669432839 telefono zenbakira deituz 18:00etatik 20:00etara, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo zortzi egun naturaleko epean.
9. Errentamendu aldia: Hamar (10) urte, ehiza esparrua berritzen duen foru agindua onesten den egunetik aurrera kontatuta.
10. Eskaintzak irekitzea: eskaintzak aurkezteko epea bukatu osteko lehen igandean, 11:00etan. Eskaintzak Marieta-Larrintzarko kontzeju aretoan irekiko dira.
11. Garaio izeneko VI-10.061 ehiza esparruaren aprobetxamendu esleitu ahal izateko, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak berori berritzeko espedientea onartu beharko du.

Garaio, 2018ko uztailaren 9a

*Presidentea*

*PRUDENCIO OTADUY ZUBIA*